

KIROL ZERBITZUA

www.aranguren.es



2026KO HAURRENTZAKO KIROL-JARDUERAK



HAURRENTZAKO IGERIKETA

2026ko ekainaren 30a baino lehen
3 urte bete dituzten eta hortik gorako
haurrentzat.



Karramarroak (hastapena 0)

11:00-11:30
11:30-12:00 (euskaraz)
12:00-12:30
12:30-13:00

Itsas zaldiak (hastapena 1)

11:30-12:00
12:30-13:00 (euskaraz)

Dortokak (hobekuntza apala)

11:00-11:30

Pinguinoak (hobekuntza aurreratua)

12:00-12:30

ZER MAILA HAUTATU?

Karramarroak (hastapena 0)

Lehen kontaktuak ur-ingurunearekin; haurra ez da uretan mantentzen. Gure helburu nagusiak urarekin harreman positiboa, segurua eta eroso izatea eta ingurune urtarrarekin **erabat ohitzea** izango dira.

Itsas zaldiak (hastapena 1)

Urarekin ohituta dauden eta laguntzarik gabe metro batzuk mugitzeko gai diren haurrentzat. Helburu nagusia, **flotazioa** eta horrek ematen dien askatasuna eta segurtasuna da; haurrek ikasten dute beren gorputza uretan kokatzen (bentrala eta dortsala) eta posizio horri eusten mugitzen diren bitartean.

Dortokak (hobekuntza apala)

Flotatzen duten eta laguntzarik gabe eta hainbat metro mugitzeko gai diren haurrentzat. Maila honetako helburuek lotura handiagoa dute igeriketarekin, **estiloetan sartuz** (krola eta bizkarra); beso eta hanken koordinazioa, gorputzaren errotazioa eta alboko arnasketa landuko ditugu.

Pinguinoak (hobekuntza aurreratua)

Igerilekuaren zabalera baino gehiago mugitzen diren haurrentzat, besoak eta hankak koordinatuz. Maila honen helburuak **krol- eta bizkar-estiloak hobetzea** eta braza eta tximeleta ikastea izango dira. Eta, beti ere, buru-jauzien lana, uretan egindako birak eta ur-trebetasun mota desberdinak ahaztu gabe.

HAURRENTZAKO IRRISTAKETA

2026ko ekainaren 30a baino lehen
7 urte bete dituzten eta hortik gorako
haurrentzat.



Maila guztiak

11:00-12:00

Modalitatea: lerroko irristaketa. Jardueran nahitaezkoa da kaskoa eta babesak erabiltzea: ukondoko eta belaunetakoak.

HAURRENTZAKO TENISA

2026ko ekainaren 30a baino lehen
7 urte bete dituzten eta hortik gorako haurrentzat.



Hastapen maila

10:00-11:00

Hobekuntza maila

11:00-12:00

Maila proba bat egingen da txanda bakoitzeko lehen egunean, 9:45ean. Izena eman duten guztiek agertu beharko dira, maila eta adinaren arabera taldea izendatuko baitiegu.

ZER MAILA HAUTATU?

Hastapen maila. Erraketa erabiltzen den kirol batekin kontakturik izan ez duten edo Tennis Eskolan ikastaro bakarra egin duten haurrentzat.

Hobekuntza maila
Tennis Eskolan hainbat urte daramatzaten haurrentzat.

INFORMAZIOA



TXANDAK

Udan zehar **hiru txanda egongo dira** eskaintako jarduera bakoitzerako: igeriketa, irristaketa eta tenisa.

1. txanda	2. txanda	3. txanda
Ekainaren 22tik uztailaren 2ra	Uztailaren 20etik 30era	Abuztuaren 3tik 13ra

Bederatzi egun (astelehenetik ostiralera).

PREZIOAK

Pertsonak	Igeriketa	Irristaketa	Tenisa
Erroldatuak	21,45 €/txanda	32,65 €/txanda	32,65 €/txanda
Erroldatu gabeko abonatuak	25,50 €/txanda	38,80 €/txanda	38,80 €/txanda
Erroldatu gabe eta abonatu gabeak	42,85 €/txanda	65,30 €/txanda	65,30 €/txanda

INSKRIPZIOAK



DATAK

Ekainak 2, 3 eta 4:
erroldatuak.

Ekainak 5 eta 6:
interesa duen edonork.

NOLA EMAN IZENA

Online eskuineko QRaren bidez edo **948 012 012** telefonora deituz (doan tarifa finkoa dutenentzat).

Ordutegia: 8:00-18:00, astelehenetik ostiralera.

Gehienez bi txanda jarduera bakoitzeko.

Eskaneatu QR hau inskripzioa egiteko:

